

Euskal AEn % 5,8 gutxitu ziren jaiotzak 2018an


Ama izan diren emakume atzerritarren % 39,7k 30 urte baino gutxiago zituen, ama izan diren espainiarren artean, berriz, % 12,2k

2018an Euskal Autonomia Erkidegoan 16.090 haur jaio ziren, aurreko urtean baino % 5,8 gutxiago, Eustaten arabera. Ama espainiarren artean % 9,5ekoa izan zen jaitsiera; ama atzerritarren artean, berriz, jaiotzen kopurua % 7,1 handitu zen.

Lurraldeen arabera, Araban 2.683 haur jaio ziren (-% 9,4, jaitsierarik handiena), Bizkaian 7.940 (-% 6,8) eta Gipuzkoan 5.467 (-% 2,3).

Mila biztanleko 7,4 jaiotzakoa izan zen jaiotza-tasa. Zifrarik handiena Araban eman da, ‰ 8,2; Gipuzkoan, ‰ 7,6; eta Bizkaian, ‰ 7,0. Euskal Autonomia Erkidegoan tasa hori 0,4 puntu jaitsi da 2017ko datuekin alderatuta, eta 2,5 puntu 2008koekin alderatuta.

Bizirik jaiotza Euskal AEn lurralde historikoaren arabera



Iturria: Eustat. Jaiotzen estatistika

Jaiotzen % 80,8tan amek 30 urte edo gehiago zituzten

Haurrak eduki dituztenen artean, talderik handiena 30 eta 34 urte bitarteko emakumeena da, jaiotza guztien % 35,4. 2017. urteko datuen aldean ehuneko sei hamarren murriztu da. Ondoren, 35-39 urte bitarteko amen taldea (% 34,8) eta 40 urte

eta gehiagokoena datoz. Azken honek gero eta handiagoa izaten jarraitzen du (% 10,6; aurreko urtean baino ehuneko bost hamarren gehiago). 25-29 urte bitarteko amen jaioberriak % 13,1 izan dira; eta 20-24 bitartekoenak, % 5. Azkenik, ama nerabeak orotarakoaren % 1,1 izan dira, aurreko urteko zifra (% 1,2) baino pixka bat txikiagoa.

Bizirik jaioak, amaren bizileku lurralde historikoaren arabera. 2018

	Euskal AE	Araba/Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
Guztira	16.090	2.683	7.940	5.467
Sexua				
Gizonezkoak	8.249	1.386	4.035	2.828
Emakumezkoak	7.841	1.297	3.905	2.639
Jaiotza-hurrenkera				
Lehenengoa	8.055	1.275	4.144	2.636
Bigarrena	6.120	1.001	2.982	2.137
Hirugarrena edo gehiago	1.915	407	814	694
Amaren adin betearen arabera				
<= 19 urte	178	37	90	51
20 - 24 urte	808	136	410	262
25 - 29 urte	2.101	383	969	749
30 - 34 urte	5.702	901	2.711	2.090
35 - 39 urte	5.600	969	2.854	1.777
>= 40 urte	1.701	257	906	538
Amaren egoera zibilaren arabera				
Ezkontua	8.955	1.516	4.213	3.226
Ezkontgabea	7.135	1.167	3.727	2.241
Amaren nazionalitatea				
Espainiarra	12.011	1.834	6.073	4.104
Atzeritarra	4.079	849	1.867	1.363

Iturria: Eustat. Jaiotzen estatistika


Amen laurdenak nazionalitate atzeritarra zuen

Amen nazionalitatea kontuan hartuz, % 25,4 atzeritarrak ziren, eta 4.079 haur eduki zituzten. 2017an % 22,3 ziren ama atzeritarrak. Amak honako nazionalitate hauetakoak ziren: 760 ama, Marokokoak; 300, Errumaniakoak; 257, Kolonbiakoak; 218, Boliviakoak; 209, Nikaraguakoak; 184, Paraguaikoak; 164, Aljeriakoak; 158, Nigeriakoak; 137, Honduraskoak; 125, Brasilgoak; eta 121 Ekuadorkoak.

Emakume atzeritarrek Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren espainiarrek baino urte gutxiagoekin eduki dituzte euren haurrak. 30 urte baino gutxiagorekin atzeritarren % 39,7 izan da ama, espainiarren % 12,2 izan den bitartean.

Amen batez besteko adina 33,5 urtekoa izan zen. Ama espainiarren artean, 34,4 urtekoa izan zen bitartean, ama atzeritarren artean, 30,9koa izan zen. 2018an ama lehen aldiz izan zirenen batez besteko adina 32,5 urtekoa izan zen.

Euskal AEko amen batez besteko adina



Ezkontzaz kanpoko jaiotzen ehunekoak gora egiten jarraitzen du

2018an ezkontzatik kanpoko jaiotzak 7.135 izan ziren; jaiotza guztien % 44,3. 2017an % 43,9koa izan zen. Duela 10 urte, 2008an, ezkontzatik kanpoko jaiotzak % 30,4 izan ziren.

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, 2018ko 8.055 lehen jaiotzak guztien % 50,1 izan ziren; bigarrenak, % 38,0; eta hirugarrenak eta ondorengoak % 11,9. 2018an bizirik jaiotakoen arteko sexuaren araberako erlazioa hauxe izan zen: 100 neskatoko 105 mutiko. Mutikoen batez besteko pisua 3.320 gramokoa izan zen, eta neskatoena, 3.212 gramokoa.

Jaiotako lekua kontuan hartuz, jaiotzen % 88 ospitale publikotan izan ziren, % 11,6 ospitale pribatutan eta % 0,4 etxean. Erditzeak 15.838 izan ziren: horietatik 15.516, bakunak; 319, bikoitzak; eta 3, hirukoitzak. Guztietatik garaiz aurrekoak 883 erditze izan ziren (% 5,6)

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62